



## **HERRI ADMINISTRAZIOETAN HIZKUNTZA NORMALIZATZEKO ZUZENDARITZAREN TXOSTENA**

**Espedientea: DNCG\_LEY\_1633/18\_10**

**Euskal Autonomia Erkidegoko dokumentu-kudeaketa integralaren eta artxiboan Lege Aurreproiektuaren** berri jaso dugu bide telematikotik Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzan uztailaren 31n Tramitagune tresna informatikoaren bitartez, Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Lege Aholkularitzak bidalita, derrigorrezko txostena emateko eskatuz.

Eskaera horri erantzunez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua, eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuaren 14.1) artikulua oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

### **a) Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.**

Abuztuaren 31ko 128/2007 Dekretuak xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezarri zuen: “*euskararen erabileraren normalizazioaren arloan eskumena duenak araua prestatzeko hasierako fasean esku hartu ahal izan dezan*”. Azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuak, aurrekoa indargabetuz, bere 4. artikuluan eskaera egiteko epea ezartzen du:

*“Proiektua izapidetzen ari den sailak egingo du aholkularitza txostena emateko eskaria, hori taxutzeko espedientea behin behinekoz onartzeko agindua publiko egin ondoren, eta instrukzioa egin duen saileko zerbitzu juridikoak dagokion txosten juridikoa eman ostean”*

Izapidetutako dokumentuetan jasotzen denez, aztertzea eskatzen zaigun xedapenaren alde aurreko onarpena uztailaren 12koa da. Bete da beraz aipatu Dekretuak xede honekin arautua.

Bestalde, aipatzekoa da hasieratik zintzilikatu direla Lege Aurreproiektuaren euskarazko zein gaztelaniazko zatiak; beraz, bete dela abenduaren 22ko 8/2003 Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 7. artikulua. Artikulu hori jarraiki, alde aurreko onarpenak legearen testu osoari buruzkoa izan behar du; euskarazko zein gaztelaniazko zatiak barne.

Xedapen hori betearaztera begirakoa da Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakia, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idazteko neurriak onartu zituena:

*“betiere dagozkion negoziazio, audientzia eta kontsultak egiteko izapideak egin baino lehenago; izapide horiek guztiak ele bitan dagoen testuarekin egin beharko dira. Ondorengo instrukzio faseetan ere, derrigorrezko txostenak eta irizpenak eskatzeko orduan, bi hizkuntza ofizialetan idatzitako testua bidaliko da.”*

Ildo beretik, izapidetzearen baitan jasotako txostenek testuaren zati biak hartu beharko dituzte kontuan eta, urratsez urrats, egokitzapenak bietan egin beharko dira. Tramitazioaren baitan egiten diren moldaketak testuaren zati bakarrean burutzea (usadioak ikusita, gaztelaniazkoan oro har) eta amaieran horren itzulpena egitea lege urraketa litzateke; horrelakoetan, prozeduran erabilitako hasierako testuaren erdia alboratuz (euskarazko zatia, adibidez), izapidetzearen ibilbidea jarraitu ez duen testu berri bat onartzen delako.

b) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko eragina.

Aurreproiektuaren III. Titulua “*dokumentu publikoetarako eta dokumentu-ondarerako irispidea*”ri buruzkoa da.

Bertan garatzen dira, besteak beste, *Euskadiko dokumentu publikoetarako eta dokumentu-ondarerako irispidea, publizitate aktiboa eta gardentasuna, dokumentuetara irispidea izateko prozedura eta eskatzaileen eskubideak zein betebeharrak.*

Halaber, badaude horiekin lotura duten beste artikulua batzuk; hala nola, dokumentu publikoen ezaugarri eta eskakizunei buruzkoa den 5. artikulua dokumentu eskuragarriak sortzearen inguruan hitz egiten du, 14. artikulua ere informazio eskuragarria aipatzen du eta 46. eta 47. artikuluek kontsultak erraztea eta ahalbidetzea.

Administrazioetako barne prozeduretan sortzen diren dokumentu gehienak ez daude ele-bietan; hizkuntza bakarrean dira sortuak, euskara edo gaztelania, eta auzitegietan onartua izan den bezala balio osoa dute.

Aldiz, herritarrei zuzendutako dokumentuak beraiek aukeratutako hizkuntzan sortzen dira edo, hauturik egon ezean zein jasotzaile jakinik ez dutenak, ele-bietan.

Orain arte horrela izan bada ere, gardentasunaren inguruko araudiak arazoak sor ditzake herritar orori interesdunaren figura zabaltzen dielako eta sarbidea, salbuespenak salbuespen, administrazioen barne prozeduretan sortutako dokumentuei.

Hori horrela, aurreikus dezakegu zenbait kasutan herritarrek jatorrizko dokumentuak eskatzeaz gain hasiko direla horien itzulpenak eskatzen; gaztelaniatik euskarara zein euskaratik gaztelaniara.

Kontuan harturik itzulpen eskaera horiek besterik gabe onartzeak zer nolako itzulpen bolumena ekar dezakeen uste dugu erraz helduko garela egoera jasanezinera; gaur egun administrazioek ez daukaten izugarritzko baliabideak beharko lirateke.

Bestalde, gardentasun legediak bidea ematen du lanketa dakarten eskabideak ez onartzeko.

Hori horrela, iruditzen zaigu oso garrantzitsua dela argi uztea dokumentuetarako irispide eskubidea dokumentu horien jatorrizko bertsioari lotzen zaiola eta, berariaz aipatzea, horien itzulpena EAEko beste hizkuntza ofizialera eskatzen bada aplikatuko dela 24.2 artikuluan formatu aldaketari buruz ezarritakoa.

Adibidez:

*2. Dokumentuetarako irispidea doakoa izango da. Hala eta guztiz ere, kopiak edo ziurtagiriak egitea eta jatorrizkoaz besteko formatu edo euskarrietarako transposizioa (**itzulpen eskaerak barne**) kontraprestazio ekonomikopean geratu ahal izango dira, indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzetan.*

Bestalde, honela dio Aurreproiektuaren 47.1 artikulua:

***47. artikulua.- Interes publikoko artxibo pribatuak.***

*1. Interes publikoko artxibo pribatutzat jotzen dira haien kontserbaziora, tratamendura eta funtsen zabalkundera bideratzen diren administrazio publikoen diru-laguntzak jasotzen dituztenak.*

Eta, honela dio Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren, abenduaren 22ko, 6/2003 Legeak bere 39.2 artikuluan:

*39. artikulua.– Diruz lagundutako erakundeak eta interes orokorreko sektoreak.*

*2.– Erakunde hauek, publikoak direnean izan ezik, lege honetako 38. artikuluko 2. paragrafoan, a) , b) c) eta d) idatz-zatietan, ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte.(...)*

Beraz, komenigarria iruditzen zaigu 47.2 artikuluan jasotzen diren betebeharren artean txertatzea:

***? ) Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren, abenduaren 22ko, 6/2003 Legearen 38.2. artikuluko a) , b) c) eta d) idatz-zatietan eta garapen araudian ezarritakoa betetzea.***

Aurreproiektuaren 28. artikuluan “*Euskadiko Artxiboen Sistemaren Zuzendaritza*”ren eginkizunak jasotzen dira eta 37. artikuluan “*Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko Artxiboen Sistemaren Zuzendaritza*”renak.

Interesgarria iruditzen zaigu hona ekartzea *Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 26. artikulua*; honela dio:

#### ***26. artikulua***

***Euskal herri-aginteeek neurri egokiak hartuko dituzte eta beharrezko bitartekoak jarriko gizarte-bizitzako alor guztietan euskararen erabilera sustatzeko,(...)***

Halaber, hona hemen Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Agenda Estrategikoaren pasarte hau:

***Horregatik, euskara biziberritzea lehentasunezko helburuetan hartua du Eusko Jaurlaritzak, eta zehar-lerro modura kudeatu nahi du elebitasuna, hau da, bi hizkuntza ofizialen trataera eta erabilera. (...) Izan ere, euskararen erabilera normalizatua eta euskararen sustapena Eusko Jaurlaritzaren sail, organo eta sozietate guztien eginkizuntzat hartzea da bi hizkuntzen arteko berdintasunerantz pausuak ematen jarraitzeko Jaurlaritzak egin lezakeen ekarpenik sendoena.***

Horiek horrela, iruditzen zaigu oso komenigarria litzatekeela Zuzendaritza horien eginkizunen artean jasotzea:

***euskararen sustapena eta normalizazioa bultzatzea beraien jardun eremuan.***

Aurreproiektuaren 11.3 artikuluan ezartzen da “*Erakunde publikoek dokumentuak baloratzeko, hautatzeko eta eskuratzeko beren batzordeak sortuko dituzte*”la eta horien osaera arautzen da.

Halaber, 34. artikuluan “*Euskadiko dokumentuak ebaluatzeko, hautatzeko eta eskuratzeko Batzordea*”ren osaera eta 35. artikuluan Batzorde horren funtzionamendua arautzen dira.

Batzordekideek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egon daitekeen dokumentazioa kudeatu beharko dutenez, zein batzordeko gainontzeko kideen hizkuntza eskubideak modu eraginkorren bermatzeko eta administrazioak jarraitu beharreko efikazia eta efizientzia irizpideei jarraituz, komenigarria ikusten dugu jarraian proposatzen dugun testua edo antzekoa txertatzea:

***Batzordeko kideak izendatzerakoan kontuan hartuko da Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan nahikoa gaitasun edukitzea eta gizonen eta emakumeen arteko oreka bilatuko da. Batzordeko kideek euren jardunean hizkuntza ofizialetako edozein erabili ahal izango dute. Euskararen normalizazioa helburu Batzordeak horrela erabakitzen bada bilera deialdiak, gai zerrendak, aktak, ziurtagiriak eta testu idatziak oro har, euskaraz bideratu ahalko dira. Bestelakoa erabakitzen bada Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatuko da.***

Proposatzen dugun testuan hizkuntzaren ikuspegia eta genero berdintasunarena elkartuta daude. Biak zeharkako gaiak izanik formula bera erabili izan ohi dugu beste hainbat kasutan.

Gauza bera esan dezakegu 31. eta 32. artikuluetan arautzen den Euskadiko Artxiboen Kontseiluaren osaera eta funtzionamenduari buruz.

Proposatutako testua hiru atal horietan errepikatzea baino egokiagoa izan daiteke jarraibide hauek xedapen gehigarri baten jasotzea kasu guztietarako.

Azkenik, txosten honen esparrutik kanpoko gaia izan arren, antzeman dugu euskarazko eta gaztelaniazko idazkerak ez datozela bat 57.1 artikuluan; honela diote:

**57. artikulua.- Zehapenen zenbatekoa.**

1. Zehapen hauek ezarriko dira:

*Arau-hauste arinen kasuan, 50.000 euroko isuna.*

*Arau-hauste astunen kasuan, 100.000 euroko isuna.*

*Arau-hauste oso astunen kasuan, 300.000 euroko isuna.*

**Artículo 57.- Cuantía de las sanciones.**

1. Procederá la imposición de las siguientes sanciones:

*Multa de hasta 50.000 euros en los supuestos constitutivos de infracciones leves.*

*Multa de hasta 100.000 euros en los supuestos constitutivos de infracciones graves.*

*Multa de hasta 300.000 euros en los supuestos constitutivos de infracciones muy graves*

Halaber, testuaren euskarazko zatian akatsak izan daitezkeen hauek antzeman ditugu:

20.1 artikuluan ortografia akatsa; honela dio:

*“(...) Euskadiko artxibo-funtsei buruko datuak biltzen dituen informazio-sistema publiko gisa (...)”*

30.4 artikuluan aditza falta dela ematen du; honela dio:

**“30. artikulua.- Euskadiko Artxiboen Kontseilua**

1. *Euskadiko Artxiboen Kontseilua Euskadiko Artxiboen Sistemaren Zuzendaritzarekin haren proposamenak egiteko lankidetzan diharduen lankidetz-arganoa da.*

2. *Informatzea dagokio, artxiboen dokumentu-kudeaketako funtzioetan eragina daukan edozein arauri buruz, baita Euskadiko Dokumentu Ondarearen deklarazioetan eta lehentasunez erosteko eskubideari buruzko txostenetan ere.*

3. *Halaber, txostenak egingo ditu lege honen jarduera-esparruaren barruan dauden entitateentzat, hala eskatzen dutenean, haien dokumentu-kudeaketa integraleko sistemen ahultasunei eta horiek ebazteko beharrezkoak diren neurri zuzentzaileei buruz.*

4. *Lanbide-profilen erreferentziako katalogo bat proposatzea, non maila eta funtzio bakoitzerako behar diren titulazio eta konpetentziak jasoko baitira.”*

Bestalde, ematen du xedapen indargabetzailea ez datorrela bat zioen azalpenean esaten denarekin.

Honela dio zioen azalpenean:

*“(...) xedapen gehigarri bakarrak indargabetu egiten ditu Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legean Euskadiko Dokumentu Ondareari lotuta dauden artikulua.(...)”*

Eta honela xedapen indargabetzaileak:

**“XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

*Indargabetuta geratzen da Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea.”*

Laguntze aldera ohartarazten dizuegu, zuzendu ahal dezazuen egokia baderitzozue.

Adeitasunez,

Joseba Lozano Santos  
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria